

## **Gobernu Sala**

Gobernu Aretoak bere erantzukizunpean epaitegien eta auzitegien funtzionamendua antolatzeko eskumena du. Honako hauexek dira Gobernu Salaren funtzioak:

1. Auzitegiko Salen artean eta Probintzia Auzitegiko Sailen eta egoitza dagokion komunitate autonomoan duten ordena jurisdikzional bereko Epaitegien artean auziak banatzeko arauak onartzea.
2. Salen behin-behineko osaketa burutzea bat-bateko zirkunstantzien ondorioz zerbitzuaren funtzionamendurako beharrezkoa litzatekeen kasuetan, betiere Sala bakoitzeko magistratuen lanpostu espezifikoak errespetatuz.
3. Botere Judizialeko Kontseilu Orokorrari ordezeko magistratuak proposatzea horretarako arrazoiak emanez: euren zirkunstantzia pertsonalak eta profesionalak azalduz, kargua burutzeko duten egokitasuna azalduz, ordena jurisdikzional batetan edo bat baino gehiagotan jarduteko duten egokitasuna azalduz, jarduera eraginkorra burutzeko gaitasuna dutela frogatuz eta funtzio judizialean jardun dutenen edo Karrera Judizialean ordezkapenak egin dituztenen kasuan frogaturiko gaitasuna erakutsiz, betiere proposaturiko lehentasun ordenaren eta eskatzaileen bazterketaren arrazoizko azalpena emanez. Errefortzu neurri gisa burutzen diren ordezeko magistratuen esleipen proposamenak baldintza berberen menpe egongo dira: izenen eta proposaturiko lehentasun ordenaren eta eskatzaileen bazterketaren arrazoizko azalpenak.
4. Diziplinazko eskumenak gauzatzea magistratuengan, betiere legeak ezarritako terminoen arabera.
5. Presidenteari bidezko deritzon ikuskapen eta informazio bisitak burutzea proposatzea.
6. Magistratuen ezgaitasun kasuetan erretiro espedienteak bultzatzea, eta magistratuei horien berri ematea.
7. Botere Judizialeko Kontseilu Orokorrak eskatzen dituen txostenak burutzea eta Auzitegiaren funtzionamenduari buruzko urteroko azalpen memoria burutzea, Sala bakoitzak abiarazi eta amaitutako auzi kopuru eta motak argi eta garbi zehaztuz eta oraindik amaitzeko dauden auziak

ere zehaztuz, betiere abiarazi zeneko urtea azalduz (guzti hau abenduaren 31ri dagokionean).

8. Botere Judizialeko Kontseilu Orokorrari Justizia Administrazioa hobetzeko (dagokien organo juridikzionaleri dagokionean) beharrezkotzat jotzen diren neurriak hartzea proposatzea.

9. Dagozkien auzitegietako kide diren magistratuen zina edo promesa (legalki aurreikusitakoa) jasotzea eta kargua ematea.

10. Gobernuko Idazkariaren txostenak jasotzea, aipaturiko idazkariaren ekimenez edota Salaren ekimenez, honen menpe dauden bulego judizialei edo idazkari judizialei eragiteagatik nolabaiteko jardueraren bat eskatzen duten auzietan. Kasu honetan, Gobernuko Idazkariak har daitekeen akordioan botoa izango du.

11. Eskumena duen organoaren aurrean idazkari judizialen, Justizia Administrazioaren zerbitzura dauden langileen edota kargu horiek izan ez arren bertan bere zerbitzua aldizka edo modu iraunkorrean eskaintzen duen beste edozeinen bidezko diziplina erantzukizunen exijentzia bultzatzea.

12. Bake Epailen izendapenen ziurtagiriak egitea.

13. Bestelako administrazio publikoekin erakunde harremanak izatea Justizia administrazioaren funtzionamendua hobetzeko helburuarekin.

14. Aipaturiko organo judizialeko epaile eta magistratu titularren postuak modu egokian beteta daudela ziurtatzea.

15. Herritarrek Justizia Administrazioaren inguruan adierazitako kexuak aztertzea.

16. Epailleek prozedura judizialetan parte hartzen duten alderdiei ezarritako zigorrak berraztertzea.

17. Oro har, legeek auzitegietako barne gobernurako organoei esleitzen dizkieten gainontzeko funtzioak (eta berariaz Presidenteei esleituak ez direnak) betetzea.